

Aurkezpen honi **zorionak** eta **eskerrak** emanaz hasiera eman nahiko nioke.

Zorionak, Udako Euskal Unibertsitateari, aurten antolatzen dituen udako ikastaroen 50. edizioa ospatzen baita. 50 oso zenbaki borobila da eta mende erdia ez da egunero ospatzen. Beraz, zorionak, bihotz-bihotzez !!!

Zorionak ere enpresa euskaldunaren erronken inguruan udako ikastaro hau antolatzeagatik. Horrelako aukerak oso baliagarriak izan daitezke hain gai interesgarri baten inguruan gogoeta ahalbidetzeko eta solasaldi bat edukitzeko.

Eskerrak, noski, UEUri eta bereziki Oskar Arantzabili udako ikastaro honetan hizlari moduan parte hartzeko aukera emateagatik.

Euskal **ekonomiaren** nazioartekotzearen zenbait **ezaugarri** (1):

- Bere nortasun esportatzailea nabarmena da: 2020an esportazioek BPGaren %49,6 osatu zuten.
- Eurogunea da helmuga nagusia: 2020an esportazioen %73 bertara.
- Esportazioen sektoreak anitzak: ekipo ondasunak, autogintza eta semimanufakturak (Hego EH); elikagaiak eta aeronautikari lotutako bitarteko ondasunak (Ipar EH).
- Merkataritza-balantzak saldo positiboa: 2020an 8.120 milioi euro gehiago kanpoan saldutakoa erositakoa baino.

Euskal **ekonomiaren** nazioartekotzearen zenbait **ezaugarri** (2):

- Munduko herrialdeen 3/4arekin salerosketak: 10etik 7k saldo positiboa merkataritzan.
- Merkataritza-balantza positiboa Euroguneko herrialde nagusiak: Frantzia, Alemania, Italia, Portugal, Belgika, Herbehereak, Polonia, Danimarka.
- Merkataritza-balantza positiboa Eurogunetik kanpoko herrialde nagusiak: Erresuma Batua, Turkia, Suitza, Israel, Hegoafrika, Australia, Txile, Brasil.
- Merkataritza-balantza negatiboa herrialde nagusiak: Espainia, Irlanda, Errusia, Ukraina, Libia, Nigeria, Txina, Taiwan, Mexiko, Venezuela.

Euskal **enpresen** nazioartekotzearen zenbait **ezaugarri** (1):

- Bilakaera baikorra: enpresa esportatzaileen kopuruak gora egin du.
- Esportazioen kontzentrazio maila altua: lehenengo 25 enpresek %45 eta lehenengo 1.000 enpresek % 97 (EAEn).
- Esportazioaren kopurua txikia: enpresa esportatzaileen %81 50.000 euro baino gutxiago, esportazioen balioaren 0,2% suposatzen duena (EAEn).
- Lurralde kontzentrazio altua: enpresa esportatzaile handienen gehiengoa (%60 inguru) Bizkaian.
- Esportatzaile handienen %70 inguru 500 langile baino gehiago.

Euskal **enpresen** nazioartekotzearen zenbait **ezaugarri** (2):

- Esportatzaile handien esportazioak salmenten %70 inguru (guztiek 150 milioi eurotik gorako esportazio bolumena dute).
- Enpresa esportatzaileen gehiengo nabarmena ETEak (%90tik gora).
- Enpresa handiek nazioartekotzean ibilbide propioa egiten dute, askotan erakundeei laguntzarik eskatu gabe.
- ETEek bai behar dituztela erakundeek eskainitako aholkularitza eta diru-laguntzak.

Euskal enpresen nazioartekotzean lagungarri diren **erakundeak** (1):

1.- Euskal Autonomia Erkidegoa:

- Eusko Jaurlaritza: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Euskadiko Nazioartekotze Agentzia (Basque Trade & Investment).
- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- Eusko Ganberak: Arabako, Bilboko eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberak. Zuzenbide publikoko eta kudeaketa pribatuko erakundeak dira.

Euskal enpresen nazioartekotzean lagungarri diren **erakundeak** (2):

2.- Nafarroako Foru Erkidegoa:

- Nafarroako Gobernua: Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua, Nafarroako Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarra.
- Nafarroako Merkataritza Ganbera.

Euskal enpresen nazioartekotzean lagungarri diren **erakundeak** (3):

3.- Ipar Euskal Herria:

- Euskal Hirigune Elkargoa.
- Baionako Merkataritza Ganbera.

Euskal enpresen nazioartekotzean laguntzeko **erakundeen kanpo sarea:**

- Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren baitan dauden **Euskadiren Ordezkaritzak:** 2 Europan (Bruselan eta Parisen), 4 Ameriketean (Buenos Airesen, Mexiko Hirian, New Yorken, Txileko Santiagon).
- **Euskadiko Nazioartekotze Agentziaren** 15 bulego propioak: 6 Europan (Londresen, Milanon, Moskun, Munichen, Pragan eta Varsovia), 6 Ameriketean (Bogotan, Buenos Airesen, Mexiko Hirian, Sao Paulon, Txileko Santiagon eta Washington, D.C.n) eta 3 Asian (Mumbain, Shanghain eta Singapurren). Gainera, beste 65 herrialdetan kanpoko aholkulariak.

Euskal enpresen nazioartekotzea sustatzeko **erakundeen zerbitzuak:**

- Aholkularitza estrategiko eta operazionala.
- Finantzaketa baliabideak.
- Prestakuntza eta talentua.
- Adimen lehiakorra.
- Lankidetzeta eta aliantzak.
- Nazioarteko lizitazioen inguruko informazioa.
- Nazioarteko sustapen ekitaldiak.

Euskal enpresen nazioartekotzea sustatzeko **erakundeen diru-laguntzak** (1):

- Aholku: Ukrainako gerrak eragindako nazioarteko zigorren eragina jasan eta industriarekin zerikusia duten euskal enpresentzako laguntza.
- Elkartu: euskal elkarte sektorialentzat eta enpresa-lankidetzako taldeentzat lankidetzan eginiko nazioartekotze jarduerak burutzeko laguntza.
- Gauzatu: atzerriko produkzio-ezarpenak sortu eta garatzeko laguntza.
- Pilotu: nazioarteko inbertsio publikoko proiektu pilotuetan parte hartzen duten euskal ETEentzako laguntza.

Euskal enpresen nazioartekotzea sustatzeko **erakundeen diru-laguntzak** (2):

- Sakondu: euskal enpresen nazioarteko lehiakortasuna hobetzeko laguntza.
- Zabaldu: euskal enpresen nazioarteko jarduera sustatzeko laguntza.
- Beint: unibertsitateko titulua duten eta nazioartekotze arloko prestakuntza jaso nahi duten euskal gazteentzako beka.
- Global training: unibertsitateko titulua duten eta profesionalki atzerrian trebatu nahi duten euskal gazteentzako beka.

Euskal enpresen nazioartekotzearen zenbait **hobekuntza arlo:**

- Erakundeen arteko **koordinazioa areagotu**, benetako lankidetzaz sustatuz.
- Erakundeek eskainitako zerbitzuen **bikoiztasuna ekidin**.
- Enpresei lana erraztu, nazioartekotzeko **leihatila bakarra** eskainiz.
- **Euskarari** bere tokia eskaini, nazioartekotzean ere balio erantsia baita: nazioartean nortasuna ematen digu, enpresaren kohesioa indartuz.
- **Zortzigarren Herrialdea** balioan jarri: euskal diaspora eta euskaldunon lagunak nazioartekotzean oso baliagarriak izan daitezke.

Nazioartekotzean **euskarari** bere tokia eskaintzeko, **pertsonen trebakuntza ezinbestekoa** da: horregatik oso egokia izan daiteke **on-line formatuan** eta **euskaraz irakatsiko** den Enpresen Zuzendaritza eta Kudeaketa Masterra (**MBA**) martxan jartzea.

Euskaraz eta on-line irakatsiko den MBA baten aurrean, zenbait **gogoeta** (1):

- Euskal Herrian MBAk ikasteko **eskaintzak ugariak** dira: EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin lankidetzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Bilboko Merkataritza Ganbera, etab.
- Gaur egun Euskal Herrian ikasi daitezkeen MBAko ikasketa gehienak **gaztelaniaz** eta **era presentzialean** eskaintzen dira.

Euskaraz eta on-line irakatsiko den MBA baten aurrean, zenbait **gogoeta** (2):

- MBA berri honen eskaintza osatzeko garaian, **partaide** egokienak aukeratu beharko dira, ahal bada erakunde ezberdinen arteko lankidetzaz sustatuz.
- MBA berri honen ikasleak izan daitezkeen pertsonengana iristeko garaian, **aliatuak** identifikatu beharko dira. Hiru adibide:
 - 1.- **Indeus**, Industriaren Euskal Plataforma, ekimenaren partaideak diren erakunde eta enpresak.
 - 2.- **Enpresarean**, Bai Euskarari Elkarrekin euskaraz lan egin nahi duten enpresen eta profesionalen arteko harremana eta elkarlana sustatzeko helburuarekin martxan jarritako proiektua,osatzen duten eragileak.

Euskaraz eta on-line irakatsiko den MBA baten aurrean, zenbait **gogoeta** (3):

3.- **Bizkaia Talent** elkarteak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailak bultzatuta sortutako ekimenak, identifikatuak dauzkan Euskal Herritik kanpo bizi diren ondo prestatutako profesionalen sarea osatzen duten pertsonak.

- Kataluniako ereduak: Universitat Oberta de Catalunya (UOC) on-line formatuan eskainitako MBA ez da katalanez bakarrik irakasten, gaztelaniaz eta katalanez baizik.

Zortzigarren Herrialdea balioan jartzeko, hobeto ezagutzearen beharra:

- **Euskal diaspora klasikoa:** mundu mailan azken urteotan euskal etheen kopuruak gora egin du; gaur egun ofizialki 196 dira, baina Eusko Jaurlaritzak onartu dituenak baino gehiago direla badakigu.
- **Euskal diaspora berria:** nazioartean lanean dabiltzan euskaldunen kopuruak ere gora egin du; ez dakigu zehazki zenbat diren eta non dauden.
- Mundu osoan **euskaldunon lagunak** ugariak dira: era berean, ez dakigu zehazki zenbat diren eta non dauden.

Etorkizunerako erronka nabarmena: **nazioartean euskal interesak** maila politikoan, ekonomikoan eta kulturean era eraginkorrean **defendatzeko**, mundu mailako euskal diaspora eta euskaldunon lagunak inplikatzeko dituen **sare** baten eraketa. Horrelako egitasmo baten inguruan, **bi gogoeta**:

- **Iraganean** egindako **ahaleginek ez** dute **arrakastarik** eduki: arrazoiak ezberdinak izan dira eta etorkizunean berriro ez errepikatzeko ongi aztertu beharko lirateke.
- **Nazioartean** badaude **egitasmo arrakastatsuak**, euskaldunontzat eredu egokiak izan daitezkeenak: **Irlanda** (Global Irish Network) eta **Eskozia** (Global Scot).

Azken mezu batekin amaitu nahiko nuke: aurkezpen hau prestatzeko hain baliagarriak egin zaizkidan datu ugari **Gaindegiak**, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak, argitaratutakoak izan dira.

Tamalez, Gaindegiak bizi dituen zailtasun ekonomikoen eraginez bere jarduerak eten ditu ekainaren 30arekin.

Gogoratu nahiko nuke Gaindegia 2004an sortutako ekimena dela, irabazi asmorik gabeko elkarte bezala eratua dagoela eta bere xede nagusia arlo sozioekonomikotik Euskal Herriaren nazio garapenari lagungarri zaizkion edukiak landu eta eskaintzea izan dela.

Enpresa euskaldunaren erronkak



UEUren Eibarko egoitza honetatik momentu gogor hauetan animoak bidali nahiko nizkieke Gaindegiaren sorreratik bere koordinatzailea izan den Imanol Esnaola eta bere lantaldeari.

Eta dei berezia luzatu nahiko nieke Gaindegiak bere ibilbidea eten ez dezan lagungarri izan daitezkeen hainbat euskal erakunde publiko eta enpresa pribaturi: Euskal Herriak etorkizunean aurrera egiteko Gaindegia bezalako ekimen gehiago behar ditu; beraz, denon artean babestu ditzagun !!!

Eskerrik asko zuen arretagatik !!!

Asier Vallejo Itsaso